



# ETXEAN ARROTZ

LEIZ

Orain dela hogeit hamar urte inguru, Irungo astekarian KANPOTARRAK izenburuz argitaldu, ta erderaturik gure aldizkariak eman zigun, AYALDE zanaren lana, aldameanean duzuten marrezkiarekin.

Beronekin argitaratzea eskatu diet zuzendariei ondoren dijoana, nire ezkon-anaiarekin nintzala gertatuaren berri ematen dutalako.

Luzaroan herritik urrun bizitua nintzen, ta berak ere ahaztuxea zuan bere jaioterria, naiz ta bere zenbait txoko marrezten jarduna izan. Astesantuko osteguna zelarik, arratsaldean jai zen. Ta beste zeregin oberik ez genduelako, antzaldatua nabari genduen gure herrian barrena, ikuskatuaz ibiltzea gogoratu zitzaigun.

Santa Klaratik egin genion gure ibilaldiari; ez genduen, jakina, berak ongi ezaguna zuen elizatxorik ikusi ahal izan. Bai orde, aldameneko perrategia; han zegoen itxita, jai eguna zelako. Baina oraindik ere, aspaldiko lanaldirik gabe, perraren batzuk jartzen omen diozkate noizean behin.

Erdiko kaletik barrena, Udaletxe ta Eliza Nagusia aurkitzen diren enparantzara heldu ginen. Santa Maria ta Madalen kalea mugatzen zituan ertzeko Kanttale, narraski atea itxirik ikus zitekean. Ta, lehen zerraldoak eramaten zituzten Txikitoneko tartetik igaroaz, Eliz kaletik barrena gorantza eginaz, Goiko kalean ginen. Agustinetako bideari ekin gabe, hilerriko atean geldituaz, ateburuko irakurgaiari begira geunden: "Laister esango da zuengatik, orain esaten dana gugatik: il ziran".

Maiseatu genituan, nola ez, On-Bide gainean eraikitako etxetzar itsusiak. Atzerantza eginik, Mikelazulotik igaro ta Madalen karrikan Xenpelarren jaiotetxea begiratu ta herriko Zaindariaren elizatzxoaren aurrean gelditu ginen. Eskubitarara eraikiak ziren etxe txiki kaxkarrak. Norbait hildakoan, bestela ezinik, zerraldoa leihotik atera behar izaten zutela esan ziguten.

Pontikatik barrena, herri mugak begiratzan ba gina bezala, Morrongiletatik igaro ta Biteri kalean aurkitu ginen.

Ibilaldi luzean, ainbat herritar agurtu genituen, jakina, baina hemen gertatua aipatzea dagokit. Gu bezain herriko-xeme egina zen "Cuque", Salamancan jaiotako Antonio Garciarekin aurrez-aurre aurkitu ta berriketari ekin genion.

Hontan, pelota plazaren atzetik zetoztenak begiratu genituen. Trena iritxia izan behar zuen, ta besteren batzuen artean, zurezko maleta kaxkarra eskuan, fardela lepo gainean zuala, bere emaztea ta iru nexka-mutikorekin irixten zen gizon arrotza zatorren.

Esango ote dizuet, gurekin berriketan ari zen gizona, zeharo asalaturik, asarre bizian agertu zitzaigula?... Ba, horixe, egia da.

"Oraindik ere gehiago?..." esan zuen. "Etxetik botako gaitue" jarraituaz. Alkarri begiratu genion gu biok, ta mutu gelditu ginen.

\* \* \*

Dakikezutenez, kanpotarrak etxeratzen zaizkigunean, bi jokabide ezberdin hartzen ditue.

Ba dira, aterpea aurkitu duten herrian, ezertxo onik aurkitzen ez dutenak; guztia trakets, zarpail, ezegoki iruditzen zaietenak. Honuntz etortzeko utzi zuten alderdia ohea ez izanarren, babestu dituan herria ta bertako giroa ezin jasan dutenak.

Besteak orde, Salamancan jaiotako gure herriko-xemea bezala, erreteriarak baino ere herri maitaleago agertzen zaizkigu. Herrian murgiltzen dira, euskaraz ikasi, bertan ezkondu ta beren seme-alabatxoak ikastolara bidaliko ditue.

Zer nolako alde ikaragarria, ain ezberdin jokatzan dutenen artean!... Zelan ez dira ba erreteriarakoak izango, herriko giroan murgilduaz, bere muintan barneratu direnak?...

\* \* \*

Beste oroipenik ere ba dut nire baitan. Ez dut begiak itxi beharrik, gogoratuaz berriro bizitzeko.

Ez nahi orduko, bainan noizbait iritxia zen gure eguna. Denpora luzetxoan nire zai egondako maitañoarekin ezkontzeko aurregunetan nintzen. Horretarako, paperak behar ta herrira etorri.

Ezin kanpotarrak bezala egun argiz etorri. Ta, ongi ilundu ta gero, Pasaira trenean iritxi, ta oinez herriratu nintzen. Egitekoa lortu, andregaiaren etxean lo egin, ta egunsentiarekin berriro, Pasairaño tapatapa joan nintzen. Ezin, Kanpion-en "Erraondoko azken txistularia" bezala, herriari begira aspertzeke egoterik izan.

Geroago ere, lehen semea jaiotzeko bezperan, nire bila etorri ziren, Erreterian zelan nenbilen txapelokerreri erantzuteko. "Cómo ha venido a Renteria", galdegin ziran zorrotz. Ordurako, eskubidea ematen ziran agiriaren jabe nintzalarik, beste galderarekin erantzun nion: "Es que me está vedado venir a mi pueblo?"... Ezin etorri nintekeala, salatu omen; ta agiria erakutsiaz, berdina egiteko eskatu ziran. Berak baino azkarrago nezakeanez, neronek egin nion makinaz... Ta horri eskerrak, nire palta emazteak ohartu gabarik, etxeratu nintzen.

Ez ote guzti hori, etxean arrotz nabari izateko?...

\* \* \*

Berrogei urte inguru joanak dira geroztik. Ta azken Madalen bezperan galduta ibilia nauzute Beraun gainean barrena. Sarrera itxita aurkitu nualako, Alabergatik goruntz egin ta ederki kosta zitzaidan Pontikara iristen.

Eskerrak garaiz nenbilela, ta "salbea" Madalengan abestu ahal izan nuen; bainan aserako "txupinazorik" gabe gelditu nintzen, bere sutunpa urrunetik entzunarren.

Herri zaharra baino aundiagoa da Beraun aldea. Ezin aurkeztuko dugu urigintza eredu bezala, baino hortxe dugu. Zenbat bizi ote dira, ta nundikakoak?... Obekiago esanaz, zeintzuk ote bertan lotaratzan direnak?... Lehenago genituen zenbait lantokiak porrot egin eta berririk sortu gabe, nun lan egiten ote dute?...

Errolda berriak egiten diren garai honetan, atseginez begiratuko genduan, 1963gn urteko aldizkarian bezala nungoak diren hemen bizi diren herrikideak.

Aspaldian ez omen da kanpotarrik heldu. Zenbat ote Erreterian bizi direnak?... Jakin nahiaz irrikaturik nauzute batez ere, zenbat "Cuque" ote ditugun jakiteko. Poz-pozik oroitzen bai dut inor baino ere herritarrago nabari zen gizona. Batez ere, besteak, "minoriatxo" bihurtu araziaz, "integratu" gaituelako. Ez bai da gure garaian bezala, euskara gailen nabari...

Halaz ere, olerki bezala atsegin zaidan Erreteritar Erramon Abaren "Euskeraren eriotza", ez dut sinesten egi bihurtu daitekeanik; ez daiteko horrelakorik gertatu, lotsaren apurrik ba dugu.

Ezin bai gindezke inolaz ere, etxean arrotz nabari.